

Kirmen Uribek *Berrian* idatzitako zutabe bat irakurriko duzu.

Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi letra beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

Oporretan edo



MaraTILa
KIRMEN URIBE

Astegun buruzuri batean aurkitu nuen kalean mutila. Aspaldiko laguna zen, urteak ziren elkar ikusten ez genuela. Banekien bera lantegi batean hasi zela lanean gu gazte ginelarik, gutariko aurrenetakoa izan zen ikasketak bukatu eta lanpostua lortzen. Geroztik, behin edo behin gertatu gara elkarrekin. Horrexegatik harritu ninduen hura kalean ikusteak, astegun buruzuri batean eta laneko orduetan, erosketak egiten.

Lagunak argitu zidan badirela hilabete batzuk ostiraletan lan egiten ez dutena, astean lau egun baino ez dutela lan egiten fabrian, eta gabonetako oporrak ere hamabost egunetakoak hartuko zituztela. «Sekula ez dut gabonetan horrenbeste egun libre izan», esan zidan berak. «Ikasle garaietatik, hain zuzen». Oporrak egoera ekonomikoak

bultzatuta hartu behar izan dituzte. Esaldi bakar batekin azaldu zidan beren egoera. «Etxerik egiten ez denez, sukaldarik ere ez da muntatzen, eta gure lantegian sukaldarako plakak egiten ditugu. Eskaririk ez dagoenez, ezin dugu lanik egin». Alduratuta zegoen laguna, baina hala ere, gauzak alde onetik ikusten ahalegintzen zen, gazteak ginenean bezala. «Irakurtzeko astia dut orain, aspalditik mesanotxean pilatuta ditudan liburuak bukatuko ditut gabonetako oporretan».

Laguna agurtu eta etxerantz egin nuen neuk ere. Bidean Marxen utopia hartaz gogoratu nintzen. Marxek uste zuen noizbait gizakiak aisialdia baino ez duela izango, lanik egingo ez den garaia iritsiko dela goiz edo berandu. Dena den, ez dut uste egoera ekonomiko okerrak bultzatutako derrigorrezko aisialdi honetaz ari zenik.

Adibidea:

0. Norekin egin du topo idazleak?

- a. Ikaskide batekin.
- b. Familiako kide batekin.
- c. Auzoko batekin.
- d. Ezezagun batekin.

1. Zergatik harritu da idazlea mutila kalean ikustean?

- a. Lanean hasi berria zelako.
- b. Lana amaitu berritan ikustea ez zuelako espero.
- c. Erosketak egiten ez zuelako inoiz ikusi.
- d. Asteazkenean han ikustea ez zuelako espero.

2. Zergatik hartu ditu oporrak?

- a. Lan asko egin dutelako aurretik.
- b. Lan egoera ez delako ona.
- c. Berak eskatu dituelako.
- d. Atsedena behar zuelako.

3. Nola sentitzen da laguna?

- a. Erabat etsita dago.
- b. Kezkatua, baina baikor.
- c. Pozik, beti bezala.
- d. Ez dakigu nola dagoen.

4. Zer zioen Marxen utopiak?

- a. Lanik ez genuela egin beharko.
- b. Aisialdia behar-beharrezkoa dugula.
- c. Gaurko egoera aurreikusi zuen.
- d. Gizakiak beti lana egin beharko zuela.

5. Zer adierazten du idazleak bere artikuluan?

- a. Derrigorrezko aisialdiak beharrezkoak direla esan nahi digu.
- b. Egoera ekonomiko kezkarri baten ondorioak azaltzen ditu.
- c. Egoera ekonomikoari irtenbideak proposatzen ditu.
- d. Egoera ekonomikoaren aurrean etsipena erakusten du.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

0.- a	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----